

Dabid Anant

EUSKARA TEKNIKARIA

## Ametsetan leial

**E**snatu al zara inoiz, bat-batean, eta ahots ozenez hizketan ari zinela ohartu? Eta, aizu, zer hizkuntzatan ari zinen hizketan? Euskaraz? Erdaraz? Ametsetan leiala al zara euskararekin? Askotan aditu dugu: euskaldunak oso leialak omen gara euskararekin, ahal dugun guztietan euskaraz egiten dugu. Kale neurketek hala diote, Txillardegiren irakurketaren arabera behintzat.

Kalean, ametsetan ez bezala, solaskidea euskalduna denean behintzat, gerok erabaki dezakegu, kontzienteki, euskaraz egiten dugun edo ez. Hizkuntza-leialtasunean, beraz, arau eta adostasun sozialez gainera, geure kontzientziak edo erabaki kontzienteak ere eraginen du.

Ametsetan, berriz, hizkuntzarekiko leialtasuna “benetakoagoa” delakoan nago, eta iruditzen zait ametsetako hizkuntza-erabilera neurtuz gero gure leialtasuna askoz modu errealean ezagutu genezakeela. Ametsak izan bailitezke hizkuntzaren gaineko arau sozialek eta konbentzioek gutxien agintzen duten lurraldea; beldurrak, aurreiritziak, konplexuak, debekuak, kontzientzia... errazen gaindi litezkeen eremu librea. Eta bertan, euskara gehien gorrotatzen duen euskararen aurkako militantetik sutuena ere euskaraz egiten imajina dezakegu. Eta, aitzitik, euskaltzalerik euskaltzaleena ere erdaraz ari daiteke gure ametsetan.

Auskalo; agian bakarren bati morbosoa irudituko zaio euskalgintzako militantzia konpar-



KARLOS CORBELLA

titzen duen kidearekin ametsetan erdara gordinean aritzea: “Venga, tío, ¿Nos hacemos un txosten y un manifiesto?”. Baliteke debekuak, bekatuak edo tabuak sortzen ohi dituen morbo horrek euskaltzale finen bat erdaraz zipriztindutako amets lizunetara eramatea: “...Mmm! Qué bien hablas en euskañol, cómo me gustaaa, háblame másss!”.

Tira, zaila da ametsen lurralde horren gaineko ondorioarik ateratzea, baina nire susmoa honakoa da: ametsetan, normalean, bizitza errealean erabiltzen dugun hizkuntza bera erabiltzen dugu. Alegia, bizitza errealean euskaraz egiten dugun horrekin, ametsetan ere euskaraz egiten dugu. Eta erdaraz egin ohi dugunarekin erdaraz.

Baina susmo horretaz gainera, galderaren bat ere badut: zer egiten dugu ezezagunekin? Lehendabiziko hitza euskaraz egiten al diegu ametsetan? Eguneroko bizitzako proportzio berean eta konstantzia berarekin? Eta euskaldunak nahiz erdaldunak tartekatzen direnean? Eta ezezagunek guri nola egiten digute lehendabiziko hitza?

Hizkuntza-leialtasunaren eta hizkuntzaren osasunaren adierazle indartsua lor genezake ametsetan. Baina zoritxarrez edo zorionez, informazio hori oraingo ez dago gure esku. Hala den bitartean ohiko adierazleetara joko dugu, eta bestelako adierazle fantastikoekin ametsetan jarraituko dugu. ■

«  
Nire susmoa da, normalean,  
bizitza errealean erabiltzen  
dugun hizkuntza bera  
erabiltzen dugula ametsetan  
»

## TXANDAN

Edu Zelaieta



Baditut zenbait urte hizkuntza-  
ren-hizkuntzen-

didaktikan: euskaltegian hasieran, ikastolan geroago eta Gasteizko Irakasle Eskolan azkenaldian. Ez natzaizue aditu gisa arituko, zaudete trankil, horretarako nahiko eskarmenturik –ezagutzarik– ez baitut, besteak beste; bai, ordea, didaktikaren alorra lanbide duen baten ikuspegitik.

2009 honetan, Jose Maria Uriartek Donostiako apezpikutzat utzi behar duela eta, Vatikanoko hautatuko duen ordezkokoak –gizonak– ezaugarri jakin batzuk eduki

## Didaktika dibinoa?

beharko dituela aipatu da: hala nola, 65 urteen bueltan ibiltzea –postuan gutxienez hamar bat urte egiteko–. Diotenez, euskalduna izatea ere kontuan hartuko dute. Halarik ere, gotzain berriak euskaraz ez baleki, luze gabe ikasiko omen luke.

Ezin uka albistea harrigarria ez denik; lagun batzuen kexa nahiz protesta ozenen arabera, adintxo batera iritsiz gero euskaraz ikastea ikaragarri zaila –ia ezinezkoa– suertatzen delako.

Bietatik bat, hortaz: edo (i) adina ez da arazoa edo (ii) didaktika dibinoaren laguntzaz jarduten dute Vatikanon. ■